Fondoaren inbertsio-politikaren printzipioen aitorpena

Caja Laboral 2030 Pentsio Plana

1.> Pentsio-planaren identifikazio-datuak

>> Pentsio Planaren datuak

a. Izena	Caja Laboral 2030 Pentsio Plana
b. Sistema	Sistema indibidualeko pentsio-plana
c. Identifikazio-zenbakia[1]	N5064

>> Pentsio Fondoaren datuak

a. Izena	Caja Laboral 2030, Pentsio Fondoa
b. Sistema	Pentsio-fondo pertsonala
c. Identifikazio-zenbakia[1]	F2028

>> Pentsio-fondoaren erakunde gordailuzainaren datuak

a. Izena	Caja Laboral Popular Coop. de Crédito
b. Helbide soziala	Jose Maria Arizmendiarrieta Pasealekua, z.g. 20500 - Arrasate (Gipuzkoa)
c. Identifikazio-zenbakia[1]	D0194

>> Pentsio Fondoaren erakunde gestorearen eta Planaren erakunde gestorearen datuak:

a. Izena	Caja Laboral Pensiones S.A., G.F.P.
b. Helbide soziala	Jose Maria Arizmendiarrieta pasealekua, z.g. 20500 - Arrasate (Gipuzkoa)
c. Identifikazio-zenbakia[1]	G0217

2.> Inbertsio-politikaren printzipioen aitorpena

>> Inbertsio-irizpidea

Fondoaren aktiboa partaideen eta onuradunen mesedetan inbertituko da, batez ere araututako merkatuetan, betiere segurtasuna, errentagarritasuna, likidezia, dibertsifikazioa, dispertsioa, moneta-kongruentzia eta helburuetara moldatutako epeak aintzat hartuta.

>> Balorazio-irizpidea

Fondoko aktiboak merkatuko prezioaren edo burutzapen-balioaren arabera baloratuko dira, indarreko legediak finkatzen dituen gidalerroei jarraiki.

>> Banaketa estrategikoa

Ondarearen % 40 gehienez ELGAko errenta aldakorrean inbertitzen du, eta errenta aldakorreko inbertsioa txikituz joango da 2030era arte.
Gainerako zorroa errenta finkoan eta/edo pribatuan inbertituko du, betiere inbertsio-mailako kreditu-kalitatea badu edo, txikiagoa bada, Espainiako Erresumaren unean uneko ratinga. Esposizio osoaren % 20k gehienez kalitate txikia izan ahalko du (BBB- baino txikiagoa).
Inbertsio-ehunekoa aldatzeko, aktibo deribatuak erabili ahal izango ditu merkatu antolatuetan. Finantza-tresna deribatuen bidezko merkatu-arriskurako esposizioa ondare garbiaren zenbatekoa izango da, asko jota.

>> Arrisku-profila

Pentsio-plan hau inbertsio-profil dinamikoetarako eta/edo 2030 urte inguruan erretiroa hartuko duten partaideentzat.

>> Arriskuak neurtzea

Azaldutako inbertsioek arrisku hauek izan ditzakete, besteak beste: merkatu-arriskua (errenta aldakorra), interes-tasaren arriskua, kanbio-tasaren arriskua, kreditu-arriskua, likidezia-arriskua eta finantza-tresna deribatuak erabiltzearen arriskua.
Arriskuok neurtzeko parametro hauek erabiliko dira:
Merkatu-arriskua: funtsaren hegazkortasun urtekotua eta errenta aldakorrean inbertitutako ehunekoa.
Kreditu-arriskua: zorroko tituluen ratinga.
Likidezia-arriskua: zorroan dagoen likideziaren ehunekoa.
Interes-tasaren arriskua: planaren gehieneko eta gutxieneko iraupen-tartea. 0 eta 15 urte bitartekoa izango da.
Kanbio-tasaren arriskua: euroaz bestelako dibisekiko esposizioa.
Deribatuekiko esposizioa: ondare garbiaren gaineko esposizioa.

>> Etekin-helburua

Etekin-helburua da bazkideei errentagarritasun- eta arrisku-profil egokia ematea, funtsaren muga-egunean, 2030eko abenduaren 31n, helburuak lortzeko.

>> Likidezia-koefizientea

Fondoak prestazioei aurre egiteko moduko likidezia-koefizientea izango du. Koefiziente hori ageriko gordailuetan eta gehienez hiru hileko mugaeguna duten diru-merkatuko aktiboetan egongo da.

>> Gainbegiratzea eta jarraipena egitea

Erakunde gestorearen Barne Kontroleko Unitateak harturiko arrisku-maila kalkulatzeko eta inbertsio-politikan finkaturikoarekin bat datorren egiaztatzeko prozedurak ditu.

>> Jasangarritasun-arriskuen integrazioa.

Pentsio-funtsa 6. Artikuluko funtsa da SFDRren arabera, beraz ez du ingurumen- eta/edo gizarte-ezaugarriak sustatzeko helburu zehatzik, ezta aktibo jasangarrietan inbertitzeko ere.
Pentsio-funtsak ESG faktoreak integratzeko politika bat du bere inbertsioetarako, eta haren helburua garapen jasangarria lortzen laguntzea da, egindako inbertsioetan ingurumen-, gizarte- eta gobernu-irizpideak kontutan hartuz.
Politika honek bi eremutatik heltzen die sozialki arduratsuak diren inbertsioei:

a) Bazterketa-politika batetik. Politika honen barruan sartzen dira, alde batetik, esklusio orokorrak, hau da, inbertsioak zerrenda jakin batzuetako aktibitate/konpainietan ez sartzea, eta, bestetik, ESG inbertsioei dagokienez, erakundearen estrategiarekin bat ez datozen jarduerak dituzten sektore jakin batzuk baztertzea.
b) Finantzaz kanpoko arriskuak integratzerakoan, ESG irizpideak (ingurumenekoak, sozialak eta gobernantzakoak) aztertu eta inbertsio-erabakiak hartzeko prozesutik.

[1] Aseguruen eta Pentsio Fondoen Zuzendaritza Orokorraren erregistro bereziko identifikazio-zenbakia

	Funtsak inbertsio-erabakietan finantzaz kanpoko arriskuak integratzeko politika bat mantentzen duenez, jasangarritasun-arriskuak ez dira esanguratsuak, arestian deskribatutako bazterketa-politikarengatik eta integrazio-prozesuarengatik minimizatu egiten baitira.
Indarraldia	2030eko abenduaren 31ra arte.